# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

847

61/1992 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publiko eta itunepekoetan ikasleak onartzeko ihardunbidea arautzen duena.

Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publiko eta itunepeko pribatuetan ikasleak onartzeko baldintzak arautzen ditu Dekretu honek, hain zuzen Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoan ezarritako printzipioen arabera.

Ikasle guztiak onartuko direla bermatzen da Dekretu honetan; muga bakarrak, adinari jarritako betebeharrak eta, horrela gertatuez gero, sartzeko beharresten diren baldintza akademikoak izango dira. Nahiko plazarik ez dagoen kasuetarako bakarrik garatzen dira aipatutako Lege Organikoaren 20. atalean ohartemandako onarpen-erizpideak, fondo publikoez ordaindutako irakaskuntzara sartzeko aukerak berdinak izan daitezela ziurtatzeko.

Horien indarrez, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren azken xedapenak Autonomi Elkarteei ematen dizkien aginpidearen babespean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko martxoaren 17an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA.– PRINTZIPIO NAGUSIAK

*1. atala.*– Ikastetxe batean sartzeko onarpena jaso ahal izateko, adinari dagozkion baldintzak eta, horrela gertatuez gero, lortu nahi den hezkuntza maila eta kurtsorako indarrean dagoen lege-araubideak beharretsitako baldintza akademikoak bete beharko dira. Ikastetxe bakoitzerako onartutako hizkuntza ereduen banaketa errespetatu beharko da, Euskal Herrian unibertsitatekoaz besteko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz (uztailaren 19ko EHAA).

*2. atala.*– Dekretu honetan eta berau garatuko duten beste xedapenetan xedatutakoaren arabera egingo da ikasleen onarpena, unibertsitatekoaz besteko mailetan irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publiko eta itunepekoetan sartzeko.

*3. atala.*– Inolaz ere ezingo da bereizkeriarik dakarren erizpiderik ezarri ikasleak onartzeko. Ezingo da Unibertsitatez besteko ikastetxeetan sartzeko baldintzarik jarri, bertaratzeko saio edo azterketak egin araziz.

*4. atala.*– Fondo publikoez ordaindutako edozein ikastetxen sartzeko plaza eskatzen duen ikaslea onartu egin beharko da, eskabide guztiei erantzuteko beste ikaspostu badaude eta ikasleak eskatutako ikasketak egiteko, indarrean dagoen legeak beharretsitako baldintzak betetzen baditu.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

847

DECRETO 61/1992, de 17 de marzo, por el que se regula la admisión de alumnos en los centros públicos y concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El presente Decreto regula las condiciones de admisión de alumnos en los centros públicos y privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con arreglo a los principios establecidos en la Ley Organica 8/1985 de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación.

En él se garantiza la admisión de todos los alumnos sin más limitaciones que las que derivan de los requisitos de edad y, en su caso, de las condiciones académicas exigidas para el acceso. Sólo para el supuesto de que no existan plazas suficientes, se desarrollan los criterios de admisión previstos en el artículo 20 de la citada Ley Orgánica al objeto de asegurar la igualdad de oportunidades en el acceso a la enseñanza sostenida con fondos públicos.

En su virtud, al amparo de la autorización que la disposición final de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación atribuye a las Comunidades Autónomas, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 17 de marzo de 1992,

DISPONGO:

CAPITULO I.– PRINCIPIOS GENERALES.

*Artículo 1.*– Para ser admitido en un centro docente será necesario reunir los requisitos de edad y, en su caso, los requisitos académicos exigidos por el ordenamiento jurídico vigente para el nivel educativo y curso al que se pretende acceder, debiendo respetarse la distribución de modelos lingüísticos autorizados en cada centro, de conformidad con lo establecido en el Decreto 138/1983 de 11 de julio (B.O.P.V. de 19 de julio), por el que se regula el uso de las lenguas oficiales en la enseñanza no universitaria en el País Vasco.

*Artículo 2.*– La admisión de los alumnos en los centros públicos y concertados, que imparten enseñanzas en los niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el presente Decreto y demás disposiciones que lo desarrollen.

*Artículo 3.*– En ningún caso podrán establecerse criterios discriminatorios en la admisión de alumnos. En los centros docentes no universitarios, no podrá condicionarse dicha admisión al resultado de pruebas o exámenes de ingreso en los mismos.

*Artículo 4.*– Cuando un alumno solicite plaza en un centro sostenido con fondos públicos en el que existan puestos escolares suficientes para atender la demanda, deberá ser admitido en el mismo siempre que cumpla los requisitos exigidos en la legislación vigente para cursar los estudios que solicita.

*5. atala.*– Eskabide guztiei erantzuteko beste plazarik ez dagoenean, beharretsitako baldintzak bete eta gero, Dekretu honetako III. Atalburuan ezarritako lehentasunezko eta osagarrizko erizpideez arautuko da ikasleak ikastetxe publiko edo itunepekoetan onartzeko ihardunbidea.

*6. atala.*– Behin ikastetxe batean hezkuntza maila zehatz baterako sartu eta gero, ikastetxe horretan jarraituko du ikasleak, onartzeko eskabide berririk egiteko premiarik gabe.

*7. atala.*– Ikastetxe publikoak badira ikasleak onartzeko arauak bete gabe uzten dituztenak, administrazioko espedienteari hasiera emango zaio euren aurka, agian sor zitezkeen erantzunkizunak zehazteko.

*8. atala.*– Goian aipatutako arau horiek bete gabe uzten dituztenak itunepeko ikastetxeak badira, ohartarazpen-zigorrak jaso ditzakete eta, horrela bada, berritu gabe utzi edo eten egin daiteke itunea, Hezkuntzarako Ituneen Arautegia onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuko 88. atalean ohartemandako moduan.

*9. atala.*– Ikastetxe publikoetan Eskola Kontseilua da ikasleak onartzeko erabakia hartzeko aginpidea duena. Itunepeko ikastetxeetan, aldiz, titularrak dira ikasleak onartzeari buruzko arauteri orokorra bete-betean betetzeko eta ikasleak onartzeko erantzunkizuna dutenak; Eskola Kontseiluari dagokio arauok betetzen direla bermatzea.

II. ATALBURUA.– ONARPENEKO IHARDUNBIDEA.

*10. atala.*– Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publiko eta itunepekoetan ikasleak sartzeko onarpen eskabideak aurkezteko epea denentzat batera zabalduko da urtero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak emandako Aginduz. Sartu nahi den ikastetxean bertan aurkeztuko dira onarpen eskabideak.

*11. atala.*– Aipatu epe hori behin amaitu ondoren, ikastetxeek aztertuko dituzte aurkeztutako eskabideak eta, Dekretu honetan bildutako arauak betetzeko, ikasleen behin-behineko onarpena egingo dute.

*12. atala.*– Behin-behineko erabakia ikastetxeko iragarki oholtzan egongo da agirian eta horrela zabalduko da bere aurka murtziloak aurkezteko epea. Onartutako eta bazter utzitako ikasleen zerrenda baremaatua jasoko da erabaki horretan, baita hutsik gelditutako ikaspostuena ere.

Ikastetxe bakoitzak bere Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari eman beharko dio behin-behineko erabaki horren berri.

*13. atala.*– Aurreko izapideak bete ondoren, ikastetxe publiko eta itunepekoetan eskuduna den sailak hartuko du behin betiko erabakia ikasleak onartzeari buruz.

*14. atala.*– Behin betiko erabakian jasoko dira 12. atalean aipatutako zerrendak, gertatutako aldaketak barnean jasota, eta, atal horretan ezarritakoaren arabera, argitaratu eta jakin erazi egingo da erabaki hori.

*15. atala.*– Behin betiko erabakiaren aurka murtziloak aurkeztu ahal izango zaizkio bakoitzaren Hezkuntzako Lurralde Ordezkariari, erabakia argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hamar asteguneko epean.

*Artículo 5.*– La admisión de alumnos en un centro público o concertado, cuando no existen plazas suficientes para atender la demanda de solicitudes, salvados los requisitos exigidos, se regirá por los criterios prioritarios y complementarios que se establecen en el Capítulo III del presente Decreto.

*Artículo 6.*– Una vez se haya accedido en un centro a una determinada etapa educativa, la continuidad en dicho centro se producirá sin necesidad de solicitar de nuevo la admisión.

*Artículo 7.*– El incumplimiento de las normas sobre admisión de alumnos por los centros públicos dará lugar a la apertura de expediente administrativo a efectos de determinar las posibles responsabilidades en que hubiera podido incurrirse.

*Artículo 8.*– El incumplimiento de tales normas por los centros concertados podrá dar lugar a sanciones de apercibimiento y, en su caso, a la no renovación o rescisión del concierto, prevista en el art. 88 del Decreto 293/1987, de 8 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de Conciertos Educativos.

*Artículo 9.*– El Consejo Escolar es el órgano competente para decidir la admisión de alumnos en los centros públicos. En los centros concertados los titulares serán los responsables de la decisión y del cumplimiento estricto de la normativa general sobre admisión de alumnos, correspondiendo al Consejo Escolar la garantía de su cumplimiento.

CAPITULO II.– PROCEDIMIENTO DE ADMISION.

*Artículo 10.*– Anualmente, mediante Orden del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se abrirá un plazo común de presentación de solicitudes de admisión en los centros públicos y concertados del País Vasco. Estas solicitudes deberán ser entregadas en el centro en el que se solicita la admisión.

*Artículo 11.*– Concluido el plazo señalado, los centros examinarán las solicitudes presentadas y, en aplicación de las normas contenidas en el presente Decreto, resolverán con carácter provisional la admisión de los alumnos.

*Artículo 12.*– La resolución provisional, que deberá contener la relación baremada de alumnos admitidos y excluidos así como la de plazas escolares que hubieran quedado vacantes, será expuesta en el tablón de anuncios del centro y contra la misma se abrirá un plazo de reclamaciones.

Dicha resolución provisional deberá ser comunicada a la Delegación Territorial de Educación correspondiente.

*Artículo 13.*– Cumplido el trámite anterior, el órgano competente de los centros públicos y concertados decidirá de forma definitiva sobre la admisión de alumnos.

*Artículo 14.*– La resolución definitiva contendrá las relaciones mencionadas en el artículo 12, incorporando las modificaciones a que hubiere habido lugar y se procederá a su publicación y comunicación, según lo establecido en el citado artículo.

*Artículo 15.*– La resolución definitiva podrá ser objeto de reclamación ante el Delegado Territorial de Educación correspondiente, en el plazo de diez días hábiles contados desde el siguiente a la fecha de su publicación.

*16. atala.*– Ikastetxe publiko eta itunepekoetan egindako ikaspostuen eskaintza orokorraren arabera, beharrezko izan daitezen neurriak hartuko dituzte Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzek, azaldutako onarpenerako ihardunbidea amaitzean eskolaratu gabeko ikasleek plaza izan dezaten.

*17. atala.*– Ikasleak onartzeari buruzko Dekretu honetako 10. atalean aipatutako Aginduan finkatuko dira ihardunbideko aldi bakoitzerako epeak. Epe hauek berdinak izango dira Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publiko eta itunepeko guztientzat.

III. ATALBURUA.– EZARRIKO DIREN ERIZPIDEAK.

*18. atala.*– Sartzeko eskabide guztiei erantzuteko beste plazarik ez badago ikastetxe batean, atalburu honetan ezarritako erizpideak ezarriz egingo da eskabideen baremazioa.

*19. atala.*– Irakasleak onartzeko erizpideak bi eratakoak dira: lehentasunezkoak eta osagarriak. Erizpideok batera ezarriko dira, Dekretu honetako eraskin lez datorren baremoaren arabera.

*20. atala.*– Lehentasunezko erizpideak hauek dira:

a) Familia unitatearen errenta eta seme-alaben kopuruaren eragina.

b) Bizilekuaren eta zentruaren arteko hurbiltasuna.

c) Neba-arrebak ikastetxean matrikulatuta izatea.

*21. atala.*– Familia unitatearen urteko errenta honako egoera hauen arabera hartuko da kontuan:

a) Lanbide arteko gutxienezko soldataren eta honen bikoitzaren arteko dirusarrerak izatea.

b) Lanbide arteko gutxienezko soldataren bikoitzaren eta laukoitzaren arteko dirusarrerak izatea.

c) Lanbide arteko gutxienezko soldataren laukoitzaren gainetiko dirusarrerak izatea.

*22. atala.*– Bizilekuaren hurbiltasuna honako inguruabarren arabera neurtuko da:

a) Ikaslearen bizilekua ikastetxearen eragin eremuan aurkitzea.

b) Ikaslearen bizilekua ikastetxearen eraginaren inguruetako eremuetan aurkitzea.

c) Ikaslearen bizilekua aurreko inguruabar horietako baten ere ez aurkitzea.

*23. atala.*– Ikastetxe bakoitzaren eraginpeko eremuak zeintzuk diren zehazteko, premiazkoa izan dadinean, Eskolatze Batzordeak sortuko dira hezkuntza mailaka; Lurralde Ordezkariak izendatuko ditu.

*24. atala.*– Aurreko atalean aipatutako Eskolatze Batzordeak honako lagun hauez osatuko dira:

a) Hezkuntza Administrazioko ordezkari bi; bata Lehendakari lanetan arituko da eta bestea Idazkari lanetan.

b) Batzorde bakoitzari dagokion hezkuntza mailako ikastetxe publiko bateko Zuzendaria, zozketa bidez aukeratuta.

c) Batzorde bakoitzari dagokion hezkuntza mailako ikastetxe itunepeko bateko Zuzendaria, zozketa bidez aukeratuta.

d) Batzordearen iharduera eremuan aurkitzen diren Udaletako edo Udaleko ordezkari bat.

*Artículo 16.*– De acuerdo con la oferta global de puestos escolares en centros públicos y concertados, las Delegaciones Territoriales de Educación adoptarán las medidas precisas para facilitar plaza a los alumnos que no hayan sido escolarizados al final del procedimiento de admisión descrito.

*Artículo 17.*– En la Orden aludida en el artículo 10 del presente Decreto de admisión de alumnos se fijarán los plazos correspondientes a las sucesivas fases del procedimiento. Estos plazos serán comunes para el conjunto de los centros públicos y concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

CAPITULO III.– CRITERIOS DE APLICACION.

*Artículo 18.*– Cuando en un centro no existan plazas suficientes para atender todas las peticiones de ingreso, la baremación de las solicitudes se realizará aplicando los criterios que se establecen en el presente capítulo.

*Artículo 19.*– Los criterios de admisión se clasifican en prioritarios y complementarios y se aplicarán con carácter concurrente, de acuerdo con el baremo que figura como anexo de este Decreto.

*Artículo 20.*– Son criterios prioritarios:

a) La renta de la unidad familiar e incidencia del número de hijos.

b) La proximidad del domicilio al centro.

c) La existencia de hermanos matriculados en el centro.

*Artículo 21.*– La renta anual de la unidad familiar se considera en función de las situaciones siguientes:

a) Ingresos comprendidos entre el salario mínimo interprofesional y el doble del mismo.

b) Ingresos comprendidos entre el doble y el cuádruple de dicho salario interprofesional.

c) Ingresos superiores al cuádruple de dicho salario mínimo.

*Artículo 22.*– La proximidad al domicilio se ponderará de acuerdo con las siguientes circunstancias:

a) Alumnos cuyo domicilio se encuentra en el área de influencia del centro.

b) Alumnos cuyo domicilio se encuentra en áreas de influencia limítrofes a la del centro.

c) Alumnos cuyo domicilio no se encuentra en ninguna de las circunstancias anteriores.

*Artículo 23.*– Con objeto de establecer las áreas de influencia de cada centro, cuando sea necesario, se constituirán Comisiones de Escolarización por niveles educativos, que serán nombradas por el Delegado Territorial.

*Artículo 24.*– Las Comisiones de Escolarización a que se refiere el artículo anterior, estarán constituídas por:

a) Dos representantes de la Administración Educativa, uno de los cuales actuará como Presidente y el otro como Secretario.

b) El Director de un centro público del nivel educativo correspondiente, elegido por sorteo.

c) El Director de un centro concertado del nivel educativo correspondiente, elegido por sorteo.

d) Un representante del Ayuntamiento o Ayuntamientos del ámbito territorial en que actúe la comisión.

*25. atala.*– Ikastetxe bakoitzaren eraginpeko eremuaren mugaketa egiteko, kontuan hartuko da, bai hurbiltasun geografikoagatik ikastetxe horretara joateko erraztasuna duten agiango ikasleen kopurua, bai ikastetxeak berak dituen ikaspostuak ere.

*26. atala.*– Lanbide Heziketarako ikastetxeetan, berauen eragin eremuak zeintzuk diren zehazteko, euretariko bakoitzean, herri osoan eta Lurralde Historikoan, edo salbuezpenez eremu zabalagoetan, ematen diren espezialitateak, lanbideak eta lanbide adarrak hartuko dira kontuan, heziketarako eskubidea babesteko eta, ikaslearen egoitza lekuagatik, inori bereizkeriarik ez egiteko.

*27. atala.*– Neba-arrebak ikastetxean matrikulatuta egotea, berauen kopuruaren arabera balioetsiko da. Eskatzaileak neba-arrebaren bat edo gehiago matrikulatuta dituela ulertuko da, horrela izateaz gain hurrengo ikasturtean bertan jarraitzekotan badira.

*28. atala.*– Honako hauek dira erizpide osagarriak:

a) Ikaslea edo beronen gurasoak edo tutoreak emigranteak izanik, azken hiru urteetan itzuli izana.

b) Ikasleak, beronen gurasoek edo eskola sasoian dauden neba-arrebek ahalurri fisiko, psikiko edo sensorialak izatea.

c) Familia ugarikoa izatea.

d) Lanbide Heziketa II. mailako ikastetxeetarako, LH-I eta IEE-I mailetatik datorrena izatea.

e) Ikaslearen gurasoak edo tutoreak Ikastetxeko Bazkide Kooperatibista izatea.

f) Ikastetxean eskuduntzak dituen sailak askatasunez balioetsi dezan beste edozein gorabehera, erizpide objektiboekin bat etorriz. Erizpide hauek publikoak izan eta eskatzaile guztien eskura egon behar dira.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Heziketa berezia behar duten ikasleen onarpena Lurralde Ordezkaritzetan egingo da, talde multiprofesionalaren diagnosia jaso ondoren, bai araubide orokorreko Irakaskuntzak ematen dituzten ohizko ikastetxe publiko eta itunepekoetan sartzeko, bai Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan sartzeko.

Talde horrek proposatuko ditu eskolaratzeko tokia eta baldintzak, erabil daitezkeen baliabideen arabera, baina lehentasuna izango dute ondo eskolaratzeko berarizko baliabide egokiak dituzten ikastetxeetan sartzeko.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari baimena ematen zaio Dekretu hau zuzen ezartzeko beharrezko izan daitezen xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko martxoak 17.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua,
FERNANDO BUESA BLANCO.

*Artículo 25.*– La delimitación del área de influencia de cada centro, se hará considerando el eventual contingente de alumnos con facilidad de acceso al mismo por razón de su proximidad geográfica, así como el número de aulas de que dispone.

*Artículo 26.*– En los centros de Formación Profesional se tendrán en cuenta para delimitar sus respectivas áreas de influencia, las ramas, profesiones y especialidades que se imparten en cada uno de ellos y en el conjunto de la localidad y Territorio Histórico o excepcionalmente zonas más amplias, a fin de salvaguardar el derecho a la educación y la no discriminación por el lugar de residencia del alumno.

*Artículo 27.*– La existencia de hermanos matriculados en el centro se valorará sobre la base del número de los mismos. Se entenderá que el solicitante tiene hermanos matriculados en el centro cuando, además de concurrir esta circunstancia, vayan a continuar asistiendo al mismo en el curso siguiente.

*Artículo 28.*– Son criterios complementarios:

a) La condición de emigrante retornado del alumno o de sus padres o tutores en los tres últimos años.

b) La existencia de minusvalías físicas, psíquicas o sensoriales del alumno, sus padres o hermanos en edad escolar.

c) La situación de familia numerosa.

d) La procedencia de los niveles de FP-I y REM-I, para el acceso a centros de Formación Profesional II

e) La condición de Socio Cooperativista del Centro Docente, de los padres o tutores del alumno.

f) Cualquier otra circunstancia libremente apreciada por el órgano competente del centro, de acuerdo con criterios objetivos. Estos criterios deberán ser públicos y estarán a disposición de los solicitantes.

DISPOSICION ADICIONAL

La admisión de alumnos con necesidades educativas especiales, bien en régimen de integración en centros ordinarios tanto públicos como concertados que impartan Enseñanzas de régimen general bien en Centros de Educación Especial, se llevará a cabo en las Delegaciones Territoriales, previo diagnóstico del equipo multiprofesional.

Dicho equipo propondrá el lugar y condiciones de escolarización con arreglo a los medios disponibles, siendo prioritaria su admisión en aquellos centros que cuenten con los recursos específicos adecuados para una correcta escolarización.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se autoriza al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias para la correcta aplicación de este Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de marzo de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
FERNANDO BUESA BLANCO.

## ERASKINA

### LEHENTASUNEZKO ERIZPIDEAK

1.– Familia unitatearen urteko errenta.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruz Familia unitateko kideek egindako azken aitorpenaren fotokopia erkatuaren bidez egiaztatuko dute urteko errenta.

Zergei buruzko legeen arabera betebehar hori egin beharrik ez dutenek, Ogasun departamentuaren egiaztagiria aurkeztuko dute, egoera hori azalduz.

a) Lanbide arteko gutxienezko soldataren eta honen bikoitzaren arteko dirusarrerak izanez gero. .......... 4 puntu.

b) Lanbide arteko gutxienezko soldataren bikoitzaren eta laukoitzaren arteko dirusarrerak izanez gero. .......... puntu 2.

c) Lanbide arteko gutxienezko soldataren laukoitzaren gainetiko dirusarrerak izanez gero. .......... puntu 1.

d) Familia unitatearen dirusarrak egiaztatzeko agiririk aurkezten ez bada. .......... puntu 1.

a), b) eta c) idazatietan jasotako kasuetan 0,5 puntu gehituko da seme-alaba bakoitzeko, eskatzailea bera zenbatu gabe; gehienera 5 puntu lor daitezke arlo honetan.

2.– Bizilekuaren hurbiltasuna.

Eskatzailearen gurasoen edo legezko tutoreen egoitza egiaztatzeko, erroldako egiaztagiria aurkeztu beharko da.

a) Ikaslearen bizilekua ikastetxearen eragin eremuan aurkitzen bada. .......... 4 puntu.

b) Ikaslearen bizilekua ikastetxearen eraginaren inguruetako eremuetan aurkitzen bada. .......... puntu 2.

c) Ikaslearen bizilekua aurreko inguruabar horietako baten ere aurkitzen ez bada. .......... puntu 1.

3.– Neba-arrebak ikastetxean matrikulatuta izatea.

a) Neba-arreba bat ikastetxean matrikulatuta izanda .......... 2 puntu.

b) Beste neba-arreba bat matrikulatuta izanda .......... puntu 1.

c) Beste neba-arreba bakoitzeko .......... 0,5 puntu

### ERIZPIDE OSAGARRIAK

a) Ikaslea edo beronen gurasoak edo tutoreak emigranteak izanik, azken hiru urteetan itzuli badira. .......... puntu 1.

b) Ikasleak, beronen gurasoek edo eskola sasoian dauden neba-arrebek ahalurri fisiko, psikiko edo sensorialak badituzte. .......... puntu 1.

c) Familia ugarikoa baldin bada. .......... puntu 1.

d) Lanbide Heziketa II mailako ikastetxeetarako, LH-I eta IEE-I mailetatik baldin badator. .......... puntu 2.

e) Ikaslearen gurasoak edo tutoreak Ikastetxeko Bazkide baldin badira. .......... puntu 2.

## ANEXO

### CRITERIOS PRIORITARIOS

1.– Renta anual de la unidad familiar.

Se acreditará mediante fotocopia compulsada de la última declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de los miembros de la unidad familiar.

En los casos en los que, de acuerdo con la legislación fiscal, no exista tal obligación se presentará un certificado de Hacienda en el que conste este extremo.

a) Ingresos comprendidos entre el salario mínimo interprofesional y el doble del mismo .......... 4 puntos

b) Ingresos comprendidos entre el doble y el cuádruple del salario mínimo interprofesional .......... 2 puntos

c) Ingresos superiores al cuádruple del salario mínimo interprofesional. .......... 1 punto

d) No aportación de documento acreditativo de los ingresos de la unidad familiar. .......... 1 punto

En los supuestos recogidos en los apartados a,b y c, se sumarán 0,5 puntos por cada hijo distinto del solicitante, hasta un máximo de 5 puntos en la totalidad del apartado.

2.– Proximidad del domicilio.

La acreditación del domicilio de los padres o tutores legales del solicitante, se hará mediante certificado de empadronamiento.

a) Alumnos cuyo domicilio se encuentra en el área de influencia del centro solicitado. 4 puntos

b) Alumnos cuyo domicilio se encuentra en áreas de influencia limítrofes a la del centro .......... 2 puntos

c) Alumnos cuyo domicilio no se encuentra en ninguna de las circunstancias anteriores .......... 1 punto

3.– Existencia de hermanos matriculados en el Centro.

a) Primer hermano matriculado en el centro .......... 2 puntos

b) Segundo hermano matriculado en el centro .......... 1 punto

c) Por cada hermano siguiente .......... 0,5 puntos

### CRITERIOS COMPLEMENTARIOS

a) La condición de emigrante retornado del alumno o de sus padres o tutores en los tres últimos años. .......... 1 punto

b) La existencia de minusvalías físicas, psíquicas o sensoriales del alumno, de sus padres o hermanos en edad escolar. .......... 1 punto

c) La situación de familia numerosa .......... 1 punto

d) La procedencia de los niveles de FP-I y REM-I, para el acceso a centros de Formación Profesional II. .......... 2 puntos

e) La condición de Socio Cooperativista del Centro Docente, de los padres o tutores del alumno. .......... 2 puntos

f) Ikastetxean eskuduntzak dituen sailak askatasunez balioetsi dezan beste edozein gorabehera, erizpide objektiboekin bat etorriz. Erizpide hauek publikoak izan eta eskatzaile guztien eskura egon behar dira.... puntu 1.

f) Otra circunstancia libremente apreciada por el órgano competentente del centro, de acuerdo con criterios objetivos. Estos criterios deberán ser públicos y estarán a disposición de los solicitantes. ........................ 1 punto

# Beste zenbait Xedapen
# Otras Disposiciones

## LEHENDAKARITZA

848

56/1992 DEKRETUA, martxoaren 17koa, zeinen bidez 1992 urtean zehar emakumezkoak Euskal Autonomi Elkarteko esparru guztietan partehartzera bultzatzeko, Emakumearen Euskal Erakundeak, Emakundek, emango dituen dirulaguntzak araupetzen baitira.

Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen otsailaren 5eko 2/1988 Legearen arabera, Erakunde horren funtsezko helburua gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako eta zinezko berdintasuna lortzea da, eta Euskal Autonomi Elkarteko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren esparru guztietan hori; horretarako, Erakundeak honako hauek hartzen ditu xedetzat, seksu desberdinekoekiko berdintasuna erraztuko duten baldintzak bultzatzea eta hori, izatez zein legez, oso-osoan gauzatzeko oztopo gerta daitekeen edozer baztertzea, eta Euskal Autonomi Elkartean emakumezkoek jasaten dituzten diskriminazio mota guztiak deuseztatzea.

Helburu horietara iritsi ahal izateko, beharrezko gertatzen da irabazte xederik gabeko Elkarte eta Federakundeek parte hartzea, beren ihardueren bidez emakumezkoen promozioa eta berdintasuna lortzebidean eragin zuzena izan bait dezakete; partehartze horren bidez, izan ere, Erakundeak berak programatutako iharduerek nahitanahiezkoa duten osagarrizko lana burutuko litzateke, berorren funtsezko helburua bideratzeko beharrezko den sentsibilizazio soziala lortzearren.

Bidezkoa da, beraz, 1992 urtean zehar, adierazitako helburuekin zerikusia duten iharduerak bideratu ahal izateko Emakumearen Euskal Erakundeak emango dituen dirulaguntzak araupetzea, publizitate, lehiakortasun eta objetibitate erizpideak bermatuz.

Horien indarrez, Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza Kontseiluak jasotako proposamena bitarteko dela, Lehendakaritzak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko martxoaren 17ko bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Emakumearen Euskal Erakundearen helburu eta xedeekin zerikusia duten proiektu zehatzak 1992 urtean zehar egiteko Erakunde horrek emango dituen dirulaguntzak araupetzea da Dekretu honen xedea. Erakundearen Aurrekontuen IV. Atalburuan

## PRESIDENCIA

848

DECRETO 56/1992, de 17 de marzo, por el que se regula la concesión de subvenciones del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, Emakunde, durante el ejercicio de 1992 para potenciar la participación de las mujeres en todos los ámbitos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El fin esencial del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, de acuerdo con lo dispuesto en su Ley de creación, Ley 2/1988, de 5 de febrero, es la consecución de la igualdad real y efectiva del hombre y la mujer en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social del País Vasco, estableciéndose como objetivos del Instituto la promoción de las condiciones que faciliten la igualdad entre los sexos y la remoción de los obstáculos que impidan su plenitud de hecho y de derecho, y la eliminación de todas las formas de discriminación de la mujer en Euskadi.

En la consecución de dichos objetivos se hace precisa la participación de las Asociaciones y Federaciones sin ánimo de lucro, que con sus actividades pueden incidir de forma directa en la promoción e igualdad de las mujeres, efectuándose con ello una indispensable labor de complemento con las actuaciones programadas por el propio Instituto, en aras a alcanzar la necesaria sensibilización social que posibilite el fin esencial de éste.

Procede regular, por tanto, garantizándose los criterios de publicidad, concurrencia y objetividad, la concesión de subvenciones por el Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, que posibiliten el desarrollo de actividades en 1992, en relación con los objetivos señalados.

En su virtud, habiendo mediado propuesta del Consejo de Dirección del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, y a propuesta de la Presidencia, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 17 de marzo de 1992,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– El objeto del presente Decreto es la regulación de las subvenciones a conceder por el Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, para la realización en 1992, de proyectos concretos relacionados con los fines y objetivos del Instituto,